

horren arabera, Jesukristok ez zukeen giza arimarik edota izpiriturik, haren jarraitzaileek esaten zuten; horren funtzioa jainkozko hitzak betetzen omen zuen Kristogan. Konstantinopoliko lehen Kontzilioak gaitzetsi zuen apolinarismoa.

Ik. Monofisismoa.

### Apolisia

Batzarrearen sakabanatzea adierazten du grezieraz. Liturgikizunetan eta bestelako \*elizkizunetan batzarburuak ematen duen azken bedeinkapena deitzen dute horrela ekialdeko erritoetan.

### Apologetika

Ik. Teologia apologetikoa.

### Apolytikion

Ekialdeko erritoetan eguneko \*troparion nagusia, ospatzen den jaia edo gogoratzen den \*santua goresten duena. Egunko liturgian hainbat aldiz errepikatu ohi dute.

### Apostasia

Sin.: Fede-arnegua; Fede-ukamena

Norbaitek ordurarte aitortu duen erlijioa arnegatzea edo horri uko egitea da, besteren bati atxeki ala ez.

Fede-ernegua ere esaten da; eta aldaketa egin duenari ernegaria deitzen diote, utzitako erlijiotik begiratzen dutenek. Hartu duen fedetik begiraturik, berriz, \*konbertsioa deitzen zaio sarritan aldaketari.

Kristautasunak bekatu handienetakotzat jo du beti apostasia. Dioklezianoren jazarraldiaren ondoren, eztabaida handia sortu zen, arnegariak berritoki elizaratzeko baldintzei buruz.

Musulmanen artean, arnegari edo apostatek heriotz zigorraren mehatxua dute.

Ik. Donatismoa; Elizaren jazarraldiak.

### Apostolua

Grezieratiko hitz honek, "bidalia" adierazten du jatorriz. Jesusek, bere Ebanjelioa adieraztera bidaltzeko aukeratu zituen hamabi ikasleei egotzitako titulua da. Hamabi horiek berarekin batera bizi ziren, haren hitzen eta bizitzaren eta bereziki heriotza-piztueren lekuko izan zitezten. Honelako taldea bildu zuen bere inguruan Budak ere.

"Hamabiak" izena, besterik gabe ere, eman ohi diote ebanjelioek. Ebanjelioari jarraituz hauek ziren: Simon Kepa (Pedro, Petri), Andres, Jakue edo Santiago Zebedeo-

rena, Joan, Felipe, Bartolome, Tomas, Mateo, Jakue edo Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon Kanandarra eta Juda Iskariote. Juda Iskariotek bere burua urkatu ondoren, beste apostoluen lehen egintzetakoa, haren ordezkioa aukeratzea izan zuten Apostoluen Eginak liburuan (1,15) agertzen denez: horretarako baldintza bat jarri zuten: Jesusen bizitzaren, heriotzaren eta piztueraren lekuko izatea. Matia aukeratu zuten.

Titulu berbera hartu zuten lehen kristauen garaiko beste \*misiolari batzuk ere, bereziki S. Paulok.

Apostolu bakoitzaren historiaz eta egin-kizunaz gain, denak batean ikusten ditu Elizak, talde eratu gisa, bere buru eta guzti, eta Elizaren lehen nukleo eta oinarritzat; "Apostoluen kolegio" honen burutzat Pedro (Kepa) nabarmentzen da Ebanjelioan eta Apostoluen Eginak liburuan. Elizaren \*apostolulutasuna Kredoan bertan fededunek aitortzen duten haren ezaugarrietako bat da.

Eliza Katolikoak apostoluen ondorengotzat hartzen ditu \*apezpikuak, eta hauen kolegioa apostoluen kolegioaren ondorengotzat. Haiengandik dute beren eskumena.

Gaur egun apostoluaren goitizena eman ohi diote sarritan edozein Herrialdetako lehen ebanjelizatzaileari: hala nola, Zirilo eta Metodiod, Eslaviarren apostoluek; S. Fermin, Nafarren apostolua; S. Patrizio, Irlandarren apostolua; Frantzisko Xabier, Indiako apostolua, etab.

Orokorki, fedearen zabaltzean eta "apostolutzan" gartsutasun eta ardura handia jartzen duen edozein kristau esan ohi da "benetako apostolua" dela edota "apostolu handia" dela. Areago, edozein kristauri esaten zaio apostolu, bere fedearen testigu izan behar lukeelako. Ekialdeko Elizan, berriz, \*liturgian irakurtzeko Itun Berriko irakurgaia --Ebanjelioa aparte-- "apostolua" izendatzen dute.

Ik. Aitormena; Apostolu-kolegioa.

Paulo Agirrebaltzategi

### Apostolu-Aulkia

Ik. Sede Santua.

### Apostolu-kolegioa

Jesukristoren hamabi apostoluek batean hartuta eta gorputz modukoa osotzen dutelarik, kolegioa osotzen dutela esaten da. Kolegio gisa, denak batean Eliza osoaren arduradun omen ziren. Horren jarraipen eta